

Noaua!!



Badatoz erregeak

Hemen jarri nahi dute
beste herrietan nahi ez duten erraustegia



Pauma
beherapenak
%50 arte



kale Nagusia 10 • tel.:943 365 943

PORTULARRUME
*Iturgindegia, manparak
Bainuko altzarak*



Urte Berri On!!

Kale Nagusia 10
☎ 943 364 537 / 943 365 200

Alkartasuna
Nekazaritza
Kooperatiba
Elkartea

**Berogailuetarako
gasoil zerbitzua
prezio onenean**



**etxez
etxeko
banaketa**

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna Herriko Nekazaritza Elkartea • Herriko Elkartea • Herriko Elkartea • Herriko Elkartea • Herriko Elkartea

Badok Amairu !!

Jokin Rezola: "Erokeria handiena egiteke dut"

Jokin Rezola gaztearen bizileku perfektua, gune isila eta erle tokietatik urruntzen dena litzateke. "Zaratarik entzuten ez den leku bat", Rezolaren hitzetan.

1. JAKIRIK GUSTUKOENA.

Txokolatea eta edateko sagardoa.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Ezagunekiko puntualtasun falta.

3. ZER GORDETZEN DUZU

SAKELEAN?

Mukizapia.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Emakume batengan.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Erleei eta liztorrei.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Ezezagunak diren asko.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Neska lagun, lagun eta familia gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Egiteke dut.

9. LIBURU BAT.

"Operación ogro".

10. FILM BAT.

"La vida es bella".



11. LEKU BAT.

Herriko zaratarik entzuten ez den leku bat.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

San Estebango belardiak.

13. URTARO BAT.

Udaberria.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Bordaerri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

BADATOZ ERREGEAK _____ **5. OR.**

EGUBERRIAK IRUDITAN _____ **6. OR.**

IÑAKI TOLARETXIPIREKIN SOLASEAN _____ **8. OR.**

ELIKAGAIK SAHARARRENTZAT _____ **10. OR.**

ERRAUSTE PLANTA, ZUBIETAN _____ **12. OR.**

ANDONI SAGARNA, EUSKALTZAIN OSO _____ **14. OR.**

KIROL ALBISTEAK IZERDI PATSETAN _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Begiratu bihotzari

Egun hauetako bizipenak kontraste handikoak izan ditut. Eguberri aldi honetan kontsumoa hitzez laburbilduko nituzke batzuk. Izan ere, zein ez da murgiltzen gutxi gehiago derrotxe zentzugabe horretan? Apaiz izan edo laiko, nik uste kontsumoaren jainko hori denok adoratzan dugula Gabonetan. Festa erlijioso baten aitzakiaz, diruaren zoramen bihurtu dugu Eguberri. Erosketa konpulsiboak, otordu pantagruelikoak, parranda amaigabeak... guztizko desorden sentimental baten ihesbide balbula bezala definitu du kazetari batek. Gure gizarte honek kendu egin dio Gabonari bere berezko esanahia, egia. Hau da behar bada ospakizun erlijiosoaren artean gehien hondatu dena. Asko gustatzen zaidan teologo batek dio: "Gauden kapitalismo honek dena komertzializatzen du, dena profanatzen".

Zorionez, ez da zarrastelkeria edo despilfarroa huts izan urte bolar hau. Solidaritateak ere izan du lekurik nire eta beste askoren bihotzetan. Egun hauetan bisitatu ditut zahar egoitzetan dauden Parrokiako aiton-amon batzuk. Guztira hogeit bat. Beste hiru pertsonak lagundu didate ibilbide honetan. Aginagan nuen ohiturari jarraitu diot. Oso aberasgarria izaten da agure hauekin topatzea: beren kezak, pozak, esperantza, nahigabeak... Zer ez dizue kontatzen? Batzuk alzeimerrarekin, besteak gorpil-aulkia lotuta... Baina, gehienetan, etsipena baino gehiago barne poza eta lasaitasuna sumatu dut beroiengan. Oro har, gainera, oso ondo tratatuak daudela esan digute.

Elkartasun jarrera hau ez da apaizen eta kristau konprometituen monopolioa; hotz aldi honetarako Donostian jarri dituzten aterpetan hogeita hamar pertsonari lagundu diete. Tolosako Abegi elkar-teak ere jarri du ostatu bat 10-12 pertsona hartzeko. Urte osoan funtzionatzen du; jaten emateaz at, pertsona horiek dituzten ezintasun fisiko eta psikikoak gainditu ditzaten ere laguntzen diete.

Egun hauetan eman die Foru Aldundiak boluntariadoaren saria bi ahizpari: Mari Kruz eta Begoña Azkueri hain xuxen. Astean hiru-tan joaten dira Martuteneko kartzelara presoek bisitatxo bat egitera. Haietako batek esan omen zion behin Begoñari: "Zure irribarrea

ikusten dudanean, barrote artean ez banengo bezala sentitzen naiz, libre". Kapitalismoak ez digu gizatasun osoa lapurtu oraindik.

Hirugarren bizipenak isiltasunarekin du zerikusirik. Duela egun batzuk "El gran silencio" pelikula ikusi nuen. Badakizue oso zinema zalea naizela. Filma hau Philip Gröning alemaniarrek errealizatu du. Frantziar Alpeetan dagoen La Grande Chartreuse monastegian. Bertan bizi diren 25 bat monjeren bizitza islatzen du pelikula honek. Ia hiru orduko dokumental bat da. Musika ez da entzuten, bakar bakarrik, eta oso tarteka, kantu gregoriano-aren bat edo hitzen baten hots ezti, leuna. Beraz, ia isiltasun osoa hiru orduz.

Gutxienez esan beharra dagoena da ezohiko pelikula dela eta halere arrakasta harrigarria izan du. Zer egiten dute monje horiek? Errezatu, irakurri, kontenplatu, mediatu, eguneroko eginkizun arruntenak eta soilenak ahalik eta gozoen burutzen saiatu. Festa berezi batzuetan bakarrik elkartzen dira bazkaltzeko, ibilalditxoren bat egiteko eta orduan bakarrik hitz egiten dute.

Lezio pare bat jaso ditut:

1-Kontsumismoan buru-belarri sartuta gaudenon salaketa. Hor ez da ikusten ez telebistatik, ez irrati-rik, ez supermerkatutik, ez luxurik... Austeritate osoan bizitzea aukeratu dute alferrikako guztia baztertuz. Guri hain garrantzitsuak iruditzen zaizkigun objektuek ez dute lekurik monastegi horretan.

2-Isiltasunaren garrantzia. Soseguaren, patxadaren, isiltasunaren ikasketa paregabea. Isiltasun horren bidez adierazten digute "hitz juxtu-ekin" bizitza honetan interesatu behar litzaigukeen gauza bakarra agian: maitasunaren, sufrimenduaren, bizitzaren zergatia. Isiltasun horrek gure bihotza edertasunez janzten du. Nik uste, isiltasun horrek Gabonaren benetako zentzua ematen digula.

Nire gogoetatxoa irakurtzerakoan urte berrian sartuta egongo zarete. Santo Tomas Lizeotik bidali didaten zorion postalaren ber-tsoxoarekin opa dizuet Urte Berri on:

"Umeak kantu kantari / helduak kontu kontari / jaio berri zaigunari. / Argi guztiak itzali eta / begiratu bihotzari".

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika !

Gabonaren negu hotzak...

Neguko hotzaren gau hartan, sukaldeko argia piztuta zegoen eta herri guziko sukaldeetan argiak piztuta zeuden. Kale gorrian, neguko hotzaren gau ilun hartan, zubi azpian argirik ez!

Neguko hotzaren gau ilun hartan, etxeko sukaldean sua piztuta zegoen eta herri guztiko sukaldeetan, suak piztuta zeuden. Kale gorrian, neguko

hotzaren gau ilun hartan, zubi azpian surik ez!

Neguko hotzaren gau ilun hartan, etxeko familia, sukaldeko mahai inguruan eserita zegoen eta herri guztiko etxeko familiak, sukaldeko mahai inguruan eserita zeuden. Kale gorrian, neguko hotzaren gau ilun hartan, zubi azpian familiarik ez! Mahairik ez!

Gabon gauaren, neguko hotzaren

gau ilun hartan, etxeko sutondoan Jesus jainkoaren jaiotza ospatu zen eta herri guztiko etxeko sutondoetan jainkoaren jaiotza ospatu zuten. Kale gorrian, neguko hotzaren gau ilun hartan, zubi azpian, Anne eta Xabier anai-arrebak, Olentzeroren oparia jaso zuten: aita eta ama amatzakoak.

Amaia Kasasola

Urtarrilaren 5ean iritsiko da errege kabalgata

Trakatan-trakatan hiru errege, trakatan-trakatan... Usurbila. Urtarrilaren 5ean Urdaiegatik abiatuko dira hiru erregeak, zaldi gainean. Laguntzaileez inguratuta, frontoirako bidea egingo dute. Zaku bete goxoki banatzeko prest.

Mantso-mantso, haurrak agurtuz, pazientzia handiz agertuko dira hiru Erregeak pilotalekura. Urtarrilaren 5ean, ilundu orduko Urdaiegatik jaitsiko dira, laguntzaileez inguratuta. Esku hutsik ez; goxoki poltsa ugarirekin. Agurtzera joaten den edonorri, agurra bera oparitzeko prest. Santuenea, eta Xaxko inguruak bisitatuko dituzte.

Herriguneko kaleak zeharkatu ostean, pilotalekura iluntzeko 19:30ak aldera iristea aurreikusia dago. Pilotalekuan zalditik jaitsiko dira. Zaldiak Eliza inguruan lasaitzen diren artean, Erregeei harrera egingo diete pilotalekuan bildu-

takoek. Kabalgata une horretan amaitu arren, haien lana ez da etengo. Azken erregeak, azken eskaerak jaso eta gero, eskari guztiei erantzuten nahikoa lan izango dute eta.

Goiz partean gutunak jasoko dituzte

Olentzerori eskatutakoa ikazkinak ekarri ez bazuen, edota Erregeei opariak eskatzeko ohitura dutenentzat, urtero legez, gutun bilketa izango da pilotalekuan. Urtarrilaren 5ean, eguerdiko 12:00etan Erregeen laguntzaileak haiengana hurbiltzen direnen eskari gutunak jasotzeko zain izango dira.

Hurrengo egunean, gutun horrek jasotako oparietan zenbateraino eragin duen aztertzeko garaia izango da. Txintxo jokatu ote den epaitzeko unea.



ZAKU BETE GOXOKI BANATUKO DITUZTE
HIRU ERREGEAK.

ARITZ GORRITI

Ika-mika !

Errauste plantarik ez

Azken 3 urtetan zaborraren gaia Gipuzkoarren arazo bihurtu dute politikoei eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, arazoari aurre egin ordez errauste planta bat jarri nahi digute. Eta hiru urte hauetan errausketa sistemaz hitz egin beharrean eta aurkeztu diren alternatibak aztertu eta eztabaidatu beharrean, errauste plantaren kokalekua izan da eztabaida gaia. Urnietan izan zen lehengo kokalekua eta garbi geratu zen herri mobilizazioak atzera bota lezakeela horrelako erabaki bat.

Dozena bat toki ezberdinen izenak entzun ditugu eta azkena badirudi, Zubieta (baina Usurbila begira) izango dela aukeratua. Ezberdintasunik ba al dago Aritzetan izan edo Zubietan Lasarte aldera begira edo Usurbil aldera begira? Zergatik jartzen da Usurbilgo alkatea urduri Usurbil hitza entzutean? Duela bi aste ko kokagunetik pasa den aste ko kokagunera ez dago 800 metroko distantziarik eta hori al da arazoa?

Herritarrok aspalditik dakigu arazoa ez dela kokalekua, baizik eta errausketa

sistema bera. Aspaldidanik dakigu herriarrok, udalak 2004ko uztailean onartu zuen errauste sistemak arazoak bakarrik sortzen dituela lehendik dugun arazoa larriagotuaz. Badakigu errauste plantak izaten duen 100 metro baino handiago ko tximiniatik emisio pozointxuak (dioxinak, metal astunak, furanoak...), hondakina eta eskoriak (erretakoaren %25 hondakin oso toxiko moduan geratzen da eta zabortegi bereziak beharko lirateke), Gipuzkoa osoko zaborra garraiatzeko suposatzen duena.... Eta noski badakigu guzti honek herritarren osasunean zuzenki eragina duela.

Guzti honen aurrean herritar asko ari dira lanean eta ALTERNATIBAK BADAUDELAKO, esan nahi dugu ozenki Usurbilgo alkateari errauste plantarik ez dugula nahi ez Zubietan, ez Usurbilen, ez Donostian eta ez inon! Entzun ditzala dauden proposamenak. Europako hainbat herritan etxex-etxeko bilketa selektiboa martxan da jadanik, ondoren tratamendu bereziak eman ahal izateko. Materia organikoa konpostatu.

Guzti hau egin da, badakigu zaborraren %85 birziklatu genezakeela. Zaborraren gestio eraginkor eta osasuntsuago baten alde egiteko momentua da.

Erabaki politiko honetan argi geratu da inork ez duela errauste plantarik nahi norberaren herrian. Usurbilgo alkatea, bere alderdiak eta noski, Usurbilgo EAJ-PNVk ordea, 2004ko uztailean erabaki eta pasa den aste ko ez ohiko plenoan berretsi zuten moduan, erraustegia nahi dute eta nahiz eta ez izan adituak gai honetan, badaki ez dela kaltegarria. Baina zergatik aztoratzen zarete orain? Usurbila begira jartzean zuen etxeetatik ikusiko delako? Zer da axola zaizuena herritarren osasuna ala datorren maizteko hauteskundeetan galduko dituzun botoak? Ea orain zer esaten dizuten zure alderdikoak diren Foru Aldundiko kideak. Herritarrok argi esaten dugu ez dugula errauste plantarik nahi, ez Zubietan eta ez beste inon!

Usurbil Bizirik



ABENDUAK 21. DONOSTIAN SAN TOMAS EGUNA
OSPATU ZUTEN EGUNEAN ATERA ZIREN KANTARI
UDARREGIKO IKASLEAK.



ABENDUAK 21. OPORRAK HASI AURRETIK,
UDARREGIKO HAUR ETA GAZTEAK KALEJIRAN IBILI
ZIREN, HAN ETA HEMEN KANTARI.



ABENDUAK 24. PRESOEN ALDEKO OLENTZERO
ARRATSALDEKO 16:30EAN ABIATU ZEN AITZAGA
AURRETIK. TRIKITILARIEK ALAITU ZUTEN PRESOEN
ALDEKO KALEJIRA.



ABENDUAK 24. ZIORTZAKOAK ETA PARROKIA
TALDEKOAK ERE ARRATSALDEZ ATERA ZIREN KANTARI.
HAUR JAIOITZA ETA TXISTULARIEN LAGUNTZAREKIN
KANTARI IBILI ZIREN.



ABENDUAK 24. HAUR JAIOITZAK GAZTE ETA
NAGUSIEN ARRETA BEREKANATU ZUEN. GURDI
GAINEAN EGIN ZUTEN IBILALDI OSOA.



ABENDUAK 24. AITZAGATIK ZEIN ELIZATIK ATERA
ZIREN KALEJIREK BAT EGIN ZUTEN
19:30AK ALDERA FRONTOIAN.



ABENDUAREN 23AN ATERA ZIREN KANTARI AGINAGAN. BATETIK BESTERA IBILI ZIREN KANTUAN, EDERKI GAINERA.



ABENDUAK 24. TALDE POLITA OSATU ZEN ZUBIETAN. TRIKITIXA ETA PANDEROZ LAGUNDUTA, SAIO EDERRAK ESKAINI ZITUZTEN.



KIROLDEGIA, JOLAS-GUNE. LEHENGO ASTEAN JOLAS-PARKE ERRALDOI BATEAN BILAKATU ZEN OIARDO KIROLDEGIA.



URTE ZAHAR GAUA. MENDEKU ITXUAK ETA DISKOTEKAK ONGI ETORRIA EGIN ZIOTEN URTE BERRIARI. SU ARTIFIZIAL ETA PETARDO HOTSA NONNAHI ENTZUN ZITEKEEN.



OLENTZERO. AURTENGOAN, ITXURA BERRIAREKIN AZALDU ZAIGU IKAZKIN FAMATUA.

Urtarrilaren 4an, gabonetako kantan eta gaztain jatea Sutegin

Zazpi eta hamabost urte bitarteko ikasleek gabonetako kanten tailerrean ikasitako gabon-kantak eskainiko dituzte. Hotzari aurre egiteko gaztain bero-beroak izango dira denontzat. Urtarrilaren 4an osteguna, arratsaldeko 18:00etan Sutegin. Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.



URTARRILAREN 4AN, ARRATSEKO 18:00ETAN HASIKO DA KANTALDIA

Iñaki Tolaretxipi, abesbatzetako zuzendaria

“Zumarten lan egitea berezia eta pozgarria izan da”

Azken hilabeteetan, Iñaki Tolaretxipi ordezkapen lanean aritu da; Zumarteko abesbatzak zuzendu ditu. Berak sortutako Landarbaso abesbatzako kide ohi Amaia Aldalur itzuliko da postu horretara.

NOAUA! Abenduaren 20an Zumartek antolatutako gabonetako kontzertuan zuzendari lanetan aritu zinen. Emanaldi berezia izan zen ezta?

Iñaki Tolaretxipi. Paradoxa bat dirudi, baina nire lehendabiziko eta azkeneko kontzertua izan zen. Taldearen zuzendaria Amaia Aldalur da. Bere haurdunaldiagatik azken lau hilabeteetan ordezkatu dut. Urtarriletik aurrera, ordea, lanera itzuliko da. Abenduaren 20ko kontzertua berezia izan zen, nire hiru hilabetekeko lana baitzen. Zumartera etortzea, hurrekin egindako nire aurreko lana gogoratzea eta nire gaztaroa gogoratzea izan da.

IÑAKI TOLARETXIPI

“Usurbilen giro ona topatu dut; oso jende jatorra eta umila ezagutu dut”

N. Oreretako abesbatza sortu zenuen. Landarbaso abesbatza?

I. T. 18 urte daramatzat zuzentzen, Ingalaterran urtebetez ikasten egon ostein. Landarbaso abesbatza sortu nuen duela hamabost urte, nire jaioterrian, Oreretan. Nire lan nagusia hor dago, talde horretan. Talde indartsua eta gaztea da. 45-50 abeslari inguru ditu. Emaztea bertan ezagutu nuen. Egun, helduen abesbatzako partaidea



ORERETAKO LANDARBASO ABESBATZA SORTU ZUEN IÑAKI TOLARETXIPI.

da. Horrez gain, Unibertsitatean irakasle lana dut. Ingeniaritzan doktorea naiz eta Bilbon klaseak ematen ditut.

N. Ahotsei begira, zer nolako harrobia dago Zumarten?

I. T. Aspalditik Usurbilen talde indartsuak izan dira. Biztanle kopuruko haur askok abestu izan dute. Musikan eta abesten, goi mailan dagoen herria dela ikusi dut. Lan egin dudana 24 haurren artean, denetik dago. Batzuk oso ahots polita dute, aurretik lan egin dutenak, aukera asko dutenak. Beste batzuk esperientziarik gabeak, lan egin behar dezente dutenak dira. Usurbilen zerbait berezia aipatzekotan, ikusi dudana giroa izan da; oso jende jatorra, umila ezagutu dut. Hemen lan egitea berezia eta pozgarria izan da.

N. Ahots guztiak landu daitezke, ezta?

I. T. Denek ez dute futboleko lehen

mailan jokatzeko aukera, baina guztiek futboleko jokatzeko gaitasuna dute. Abesteko gaitasuna denek dute, bakoitzak bere mailan. Zenbait haur, nahiko maila baxuarekin datoz, inoiz abestu ez dutelako. Azken finean, hau praktika bat da. Gauza asko lortu daitezke, eta baita, abeslaririk onenean bihurtu ere. Inork musikarako balio ez duela esatea ez zait logikoa iruditzen. Nik izan ditut hori esan duten abeslariak. Gaur egun, Landarbaso primerako abeslariak dira. Denbora behar da ahotsa lantzeko, denak bere prozesua behar du. Oro har, esperientziak ilusioa etorkizuna dela esaten dit. Jendeak gauzak gogoz hartzen dituenean, iristen ez den puntura ailegatzen da.

N. Ingeniaritzako irakasle Bilbon. Musika munduan Oreretan. Bateragarria zaizu?

I. T. Hasieratik. Erabaki bat hartu

behar izan nuen; musikara edo ingeniarrizara dedikatzea. Musika profesional moduan hartzen dut, nahiz eta “hobby” bat izan. Horrek ez du esan nahi nire exijentzia maila txikiagoa denik; unibertsitateko irakasle lanean bezala, musikan ere exijentzia oso altua da.

IÑAKI TOLARETXIPI

“Musika profesional moduan hartzen dut, nahiz eta *hobby* bat izan”

Abesbatza, osatzeke

N. Egun, Zumarte Musika Eskolak hiru abesbatza ditu?

I. T. Txikien abesbatza 7-11 urte artekoentzat eta bestea, 11-14 urte artekoentzat. Horrez gain, hogeitertetik gorako bost abeslari daude. Abesten esperientzia dute, horretan urte askotan aritu baitira. Haien asmoa abestea eta horrekin goz-



ZUMARTEKOEK ABENDUAREN 20AN ESKAINI ZUTEN EMANALDIA. ORERETARRAREN AGURREKOA IZAN ZEN.

tzea da. Ezin dugu esan abesbatza denik, baina jende gehiagok izena emango balu, abesbatza txiki bat osatzeko aukera egon daiteke. Anima dadila jendea. Musika sentitzeko aukera izugarria dago. Abesten musikaz gozatzeko aukera dago. Berandu

osatu zen taldetxoa, urrian. Ondorioz, ez da deialdi publikorik egin; ahoz aho zabaldu da. Jende jatorra dago eta oso giro politean aritzen dira.

ARITZ GORRITI

Ludoteka berria Aginagan

Haur txokoa, hitzaldien toki... Heta aginagarren bilgune. Aginagako Zahar Egoitzako eraikinak txoko berri bat du; ludoteka. Abenduaren 29an inauguratu zen erabilera anitzeko gune berria. Hasita dagoen urterako hainbat emanaldi, hitzaldi, proiektzio eta beste hainbat ekitaldiren leiho berria izango dena, zabalik dago.

“Ea denon artean bizitza gehiago ematen diogun”. Eskari horrekin inauguratu zuten abenduaren 29an, Aginagako ludoteka berria. Zahar Egoitzaren eraikin bereko goiko pisuan kokatua dagoen gune berria Aginagako haurrentzat eta oro har, herritar ororentzat zabalik zegoela adierazi zuten aurkezpen ekitaldian. Probetxuzkoa izateko esperantzarekin inauguratu dute. Txalapartari eta trikitilari gazteen saio artean. Ekitaldia jan edanarekin hornitu zuten, askari aparta eskaini baitzuten

bertara hurbildu zirenei. Hainbat haur eta gurasoei edota gerturatu ziren udal ordezkari; Luisuari Ormaetxea alkateari, Imanol Zubiondo, Salome Portu eta Josune Urkia zinegotziei.

Erabilera anitzeko gunea

Haurren txoko edota hitzordu eta ikus-entzunezko proiektzioen toki. Bilgune berrian adin ezberdinetako herritarrei zuzenduko dira ekitaldiak. Horma bereizle baten bidez, gunea bera bitan zatitzeko aukera dago. Hartara, inauguratu berri den txokoa aldi berean eginkizun bat baino gehiagotarako baliatu ahal izango da.

Ikastaro gehiago 2007an

Dagoneko zenbait ekitaldi edota ikastaro ospatu dira. Inaugurazio ekitaldiaren atarian, Antxomolantxa Herri Elkartek eta San Praixku Guraso Elkartek antolatuta, Tapia margolariaren tailerra, aingiren biberoak, Txiki



ABENDUAREN 29AN ZABALDU ZEN AGINAGAKO LUDOTEKA BERRIA.

Park eta Kutxa Espazioa bisitatu zituzten. “Bihar” txotxongilo taldeak emanaldia eskaini zuen, “Las tortugas también vuelan” eta “Bowling for Columbine” filmak ikusi zituzten edota haur txokoak ere izan dituzte. Yoga ikastaroarekin batera, amaitu berri den urtean ospatu diren ekitaldiak dira. Hasi berria den urteari begira, ikastaro berriak eta hainbat ekitaldi antolatzeke asmoa agertu zen aurkezpen ekitaldian.

Elikagaiak sahararentzat

Saharrek bizi duten egoera larriari aurre egiteko, hirugarren urtez, bertara bidaliko diren oinarritzko gaiez osatutako karabana antolatu da. Urtarrilaren 26ra arte, Udarregi ikastolan, Dian eta Aliproxen atuna, arroza, azukrea, dilistak eta konpresak biltzeko guneak prestatu dira.

Sahararentzako produktu bete karabana osatu nahi da. Bizi duten egoera larria, neurri batean bada ere hobetzen laguntzeko. Baina horretarako herritarren laguntza ezinbestekoa da. Atuna, azukrea, lentejak, konpresak eta arroza biltzeko guneak aurki daitezke Udarregi ikastolan, Dian eta Aliproxen urtarrilaren 26ra arte. Gune horietan aipatutako oinarritzko gai horiek utzi daitezke. Helburua, elikagaiak bildu eta Saharara bidaltzea da.

Sahararei iristen zaien laguntza guztia dute beharrezkoa. Ekimena dagoeneko hirugarren ediziora ailegatu da. "Piztu itxaropena" lelopean, ahalik eta produktu gehienak bildu nahi dira.



IKASTOLAN, DIAN ETA ALIPROXEN BILDUKO DIRA GAI GUZTIAK URTARRILAREN 26RA ARTE.

Bestalde, ekarpenak dirutan ere egin daitezke. Ondorengo kontu korrante zenbakian: 3035 0080 94 0800054177 Euskadiko Kutxa. Informazio gehiagorako, kontuan izan harremanetarako ondorengo bideak: 619 029 648 / ucs-sku@euskalfondoa.org

ARITZ GORRITI _____

Atuna, azukrea, lentejak, konpresak eta arroza jaso nahi ditu Sahararen aldeko karabanak

Eskatu diren gaiak: atuna, azukrea, lentejak, konpresak eta arroza.

Non utzi: Udarregi ikastolan, Dian eta Aliproxen ipini diren bilgunetan.

Noiz arte: urtarrilak 26 ostirala.

Diru ekarpenak:
3035 0080 94 0800054177
Euskadiko Kutxa

Sahararren biziraupena jokoan

Marokoren 30 urteko okupazio latzak zauri ugari eragin ditu sahararren. Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoko presidente Mohamed Abdelazizek azaroa hasieran Euskal Herrira egin zuen bidaian aipatu zuenez, "biziraupena bermatzeko ezinbesteko elikagaien erreserbak ahotzen ari dira". Modu horretan deskribatu zuen Tindufeko iheslari saharrek bizi duten egoera.

Era berean, saharrek hain beharrezkoa duten laguntza murrizteko Maroko egiten ari den nazioarteko kanpaina salatu zuen. "Zoritarrez, kanpaina hori oihartzuna izaten ari da", adierazi zuen. Nazioarteari gogotaren ondorioak saihesten laguntzeko dei egin zuen.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Peña Pagolak irabazi zuen Elkarteen Arteko Mus Txapelketa

Urte batzuk pasa dira Elkarteen Arteko Mus txapelketa egiten hasi zirenetik. Abenduaren 16an bederatzigarren edizioa jokatu zen Txokoaldeko Erroizpe elkartean. Peña Pagolako Angel eta Rufino izan ziren irabazleak. Mahaspildegiko Joxe Mari eta Koldo, bigarren; eta Aginagako Joxe Mari eta Patxi, hirugarren.



IRABAZLEAK, PEÑA PAGOLAKO
RUFINO ETA ANGEL.

Erroizpen herriko bederatziz elkartetako ordezkariak bildu ziren: Ibai-Ondo, Peña Pagola, Aginaga, Eguzki, Aitzaga, Mahaspildegiko, Andatzpe, Joko Garbi eta Erroizpe. Elkarte bakoitzeko bi bikote hartu zuten parte abenduaren 16an jokatu zen txapelketan. Baina hori baino lehen, bikote guztiek aurretik kanporaketa fasea jokatu zuten.

2005eko edizioan zubietarrak izan ziren garaile. Zubietako Yoko Garbi elkartean jokatu zen eta Joxe Antonio eta Jon Arroyo aita-semeak izan ziren garaile.

Elkarteen arteko mus txapelketako antolatzaileek laguntzaile hauen babesa eskertu nahi dute: Euskadiko Kutxa, Txitxardin, Antxeta, Saltxipi, Saizar, Olarrondo, Sekaña, Aginaga sagardotegia, Maikar, Atxega, Araeta, Urdaira, Aialde-Berri, Bordatxo, Alamandegia, Iruin, Irigoieta eta Barazar.



BIGARREN SARIA ESKURATU
ZUEN MAHASPILDEGIKO KOLDO
ETA JOXE MARI BIKOTEAK.



AGINAGAKO JOXEMARI ETA
PATXI HIRUGARREN IZAN ZIREN.

Usurbil KE eskubaloit taldeko saskien irabazleak

Usurbil KE eskubaloit taldeak gabonetako saskiak zozketatu berri ditu taldeko bazkideen artean. Agustin Dominguez eta Jesus Mari Borda izan dira garaileak. Zorionak.



AGUSTIN DOMINGUEZ ETA
JESUS MARI BORDA, IRABAZLEAK.

Hernaniko Etxebeste farmaziak egingo du gaueko goardiako zerbitzua 2007an

2007an gauez farmaziaren premia duenak, Hernaniko Etxebeste farmaziara jo beharko du. Hala izango da urte osoan. 2006an, Hernaniko beste farmazia batek eman zuen zerbitzu hori, Aizpuruk hain zuzen. 2007an ordea, Etxebeste farmaziaren txanda izango da.

Gaueko 22:00etatik aurrera hasiko da gaueko goardiako zerbitzua.

Azken urteotan egin dugun bezalaxe, 2007an ere eguneko zein gaueko goardiako farmazien zerrenda astero-astero argitaratuko dugu NOAUA!n. Eta urte osoko egutegia www.noaua.com webgunean aurki-

tuko duzue. Dagoeneko sarean duzue ikusgai.

Gaueko goardiako farmazia
Etxebeste Farmazia

Helbidea: Elkano 2 kalea, Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.

Donostiako Udalak Zubietan jarri nahi du erraustegia

Zubietan egin nahi dute erraustegia, Usurbil aldera ematen duten lurretan, Artzabaleta izeneko gunean. Hala erabaki zuen Donostiako Udaletxeko Gobernu Batzordeak (PSE-EE) abenduaren 29an. Udaleko Ingurugiro zinegotzi Denis Itxasoren iritzian, herri guneetatik "arrazoizko distantziara" dago Artzabaleta.

Ez zen hori Donostiako udaletxeko Gobernu Batzordeak abenduaren 29an hartutako erabaki bakarra izan. Maiatzaren lehenerako kontsorzio bat osatuko dute Gipuzkoako zaborrak kudeatzeko. Erraustegia egin bitartean, San Markosko zaborrak Lapatxera, Urtetara eta Sasietara eramatea erabaki zuen Donostiako udaletxeko Gobernu Batzordeak. Orain, Udaleko osoko batzarrak onartu behar du hitzarmena, Diputazioak ere bai, eta baita

Gipuzkoako mankomunitateek ere.

Baina zehaztu den kokagune berria Lasartetik, Usurbildik eta Zubietatik bi kilometro baino gertuago dago, hori dela eta, errauste planta toki horretan jartzea legez kanpoko dela dio Lasarte Bizirik plataformak.

"Herriarrei bizkarra ematen"

Aste honetan egindako adierazpenean, Lasarte Bizirik plataformak instituzioen jarrera gaitzetsi du, "Gipuzkoan errauste planta jartzearekin tematuta jarraitzen dute. Gainera, 20 milioi euro gastatu dituzte, errauste planta Usurbilera begira jartzea erabakitzeko". Aste honetan kaleratutako agirian xantxia egitea leporatu diote Gipuzkoako Diputazioari eta mankomunitateei.

"Berriz ere herriarrei bizkarra ematen" ari dira instituzioak, plataformaren iritzian. Lasarten 10.000 lagunek errausketa plantaren kontrako manifes-



ARTZABAELETATIK HONELA IKUSTEN DA USURBILGO KAXKOA.

tazioa egin zutela gogora ekarri dute.

Gai honen inguruan hausnarketa sakona eskatu dute Lasarte Bizirik-eko kideek.

IMANOL UBEDA

Hemeroteka !!

"Lasarte-Oriako herritarrak desmobilizatu nahi dituzte"

Imanol Azpiroz Zubietako alkateari legegintza elkaritzaketa argitaratu zuen abenduaren 30ean *Berria* egunkariak. Hemen dituzue oso-osorik Zubietako alkateak eginitako adierazpenak.

**Kokalekua jakiteak aldaketarik eragin-
go al dizue?**

Kokalekua da gutxienekoa, gu hondakinak erraustearen kontra gaude. Bagenekien txosten teknikoaren emaitza zein izango zen, baita egin aurretik ere. Hala ere, 120.000 euro gastatu dituzte hilabeteen txostena egiteko.

Artzabaletan zer dago?

Besteak beste, Landaberri ikastetxea 800 metrora. Artzabaleta Realaren zelai berrien gainaldean dago.

Baina ez al dago Usurbilera begira?

Hori azpijokoa da. Usurbil aldera dagoela esanez Lasarte-Oriako herritarrak desmobilizatu nahi dituzte. Baina Lasarte-Oriako herritarrak ez dira desmobilizatu-

ko. Are gehiago, orain Usurbilgoak mobilizatuko dira. Administrazioak badaki azken aukera duela: kokalekua zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta aurrerago gehiago izango ditu. Herriarrek ez diete utziko, badakitelako badaudela beste aukera batzuk hondakinak kudeatzeko.

Beraz, Artzabaleta Lasarte-Oria aldera al dago?

Artzabaleta baserri bat da, Zubietatik eta Usurbil artean. Baina baserriak lurrak ditu Realaren kirol instalazioetatik gertu, gorago. Baina jendea nahasteko esaten dute Usurbildik gertuago dagoela.

Usurbilentzat alde handia al dago batean edo bestean jarri?

Berdin da, eta jendea ez da inozoa.

Usurbilgo alkateak neurri administrazioak edo juridikoak iragarri zituen.

Usurbilgo Udalak osoko bilkura egin du gaur, eta alkateak hasieran esan du ez duela utziko zaborren kudeaketaren gainean hitz egiten, kokalekuari buruz baka-

rrik baizik. Adierazgarria da. Beraiek ez dute egiten, eta besteek ez diete uzten zaborrak modu alternatiboan kudeatzen.

Erakundeen arteko lankidetzak hitzarmenaren arabera, bi konpostatze planta egingo dituzte.

Pentsa, guk, konpostatzearen alde gaudenok, helegitea aurkeztu dugu Azpeitian konpostatze planta egiteko hitzarmenaren kontra. Administrazioaren asmoa ez da konpostatzea ahal den ondoen baliatzea, errauste planta jarri eta modu zehatz batean bakarrik konpostatzea. Zertarako? Hondakinak hainbeste ez gutxitzeko. Errauste plantak hondakin asko behar du martxan jarraitzeko.

Proiektua gerarazi al daiteke oraindik?

Bai, behin ere baino gehiago. Herriarrek daukate giltza. Konpromisoa hartu behar dute zaborrak gutxitzeko eta bereizteko. Gero, udalek bildu behar dituzte gaika eta tratamendu egokia eman behar diete. Zergak ere ezarri behar dira, eta informazio kanpainak behar dira.

Luismari Ormaetxea alkatearen ustez, Odon Elorzak eta PSE-EEk agintzen duten herrietatik urrundu nahi dute erraustegia

Abenduaren 28an, txantxa gutxirako giroa zegoen Usurbilgo udaletxean. Egun horretako *El Diario Vasco*ren (DV) esanetan, Donostiako Udalak erraustegia Zubietako gainean jarri nahi zuen, Usurbil aldeko magalean. Kontua da Gipuzkoako Diputazioak Lasarte-Oria aldeko magalean zehaztu zuela balizko kokagunea. Honek Luismari Ormaetxea Usurbilgo alkatearen haserrea eragin zuen. Arratsalde horretan bertan prentsaurrekoa eskaini zuen Sutegin.

DV egunkariak aipatzen zuen informazioaren aurrean haserre azaldu zen Luismari Ormaetxea. Usurbilgo alkatearen ustez, “horrelako gai sensible bati ezin zaio horrelako tratamendurik eman. Datu objetiborik gabe, informazioaren jatorria adierazi gabe, kezka eta desorientazioa herritarrengan sortuz”. Horregatik, informazio hori zuzentzea eskatu zion Luismari Ormaetxeak DVri, “edo, bestela, duen informazio guztia plazaratu dezala”. Filtratua izan zen informazio horren atzean, Odon Elorzak propagandarako eta desinformazioarako duen abilitadea dagoela adierazi zuen Usurbilgo alkateak. Halaber, Donostiako alkateak PSE-EEren konplizitatea duela adierazi zuen Luismari Ormaetxeak, “alderdi honek kudeatzen dituen herrietatik arazo hau urruntzeko” asmoz.

Luismari Ormaetxeak Sutegin adierazi zuenez, Usurbili begira egindako proposamenek ez dute inongo oinarri urbanistikorik: “ez dago hori garatzeko planean zehazturik ezta formula urbanistikorik. Odon Elorza espektatiba faltsuak sortzen ari da. Ez dago behin betiko kokagunea ziurtatzen duen informerik”. Abenduaren 28an argitaratua izan zen kokagunearen harira, “ez dago oinarri juridikorik, ez dago hitzarmenik sinaturik beste mankomunitateekin, ez dago hondakinen tratamendua kudeatuko



ABENDUAREN 29AN EZ OHIKO UDALBATZA PLENOA EGIN ZEN. EZ ZEN ERABAKIRIK HARTU, BEZPERAN PRENTSAN AZALDUTAKOARI BURUZKO BALORAZIOA EGIN ZUTEN PLENOAN ORDEZKATUTA ZEUDEN ALDERDIEK.

duen partzuergorik, ez dago udal erabakirik... Dena kea da”, adierazi zuen Usurbilgo alkateak. Biharamunean, ordea, Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak proposamen finkotzat aurkeztu zuen bezperan *El Diario Vasco* aurreratutakoa.

Donostiako alderdikideei oharra

Donostiako EA eta EAJ-PNVko zinegotzientzat ere hitzak izan zituen Luismari Ormaetxeak: “ez daitezela Odon Elorzaren kolaboratzaile bihurtu”. Usurbilgo alkatearen esanetan, Odon Elorzak jada zehaztuta zeuden kokaguneei artean aukeratu behar zuen. Usurbili begira egongo litzatekeen kokagune hori ez zegoela mankomunitateekin eta Foru Aldundiak irailean adostutako zerrenda horretan. Beraz, Usurbilgo alkatearen esanetan, “erabaki politikoa izango da eta ez teknikoa. Proposamen hau kartzela eta erraustegia bateraezinak direlako omen da, Espetxe Agintaritzak horrela adierazi omen duelako. Ez dut ikusi dokumenturik hori baieztatzen duenik. Hala balitz ere,

baieztapena zertan oinarritzen den jakin nahi dut. Erraustegirik ez balitz, orain planteatzen den gunek hori ez litzateke mahai gainean jarriko, orain bezala, gunek ez-urbanizagarri izaten jarraituko luke, gunek natural bat. Beraz, *ad hoc* bilatutako gunek da”.

Bide administratiboa eta juridikoa

Honengatik guztiagatik, “gai honekiko erantzukizuna duten agente guztiei argibideak eskatzen dizkiet, benetan beste aukerarik ez dagoela frogatzen duten argibideak, bestela, Usurbilgo udalak bere esku dituen baliabide guztiak, administratiboak eta juridikoak, indarrean jarriko ditu oinarri politiko hutsa duen erabaki politiko baten aurka”, adieraziz amaitu zuen bere adierazpena Luismari Ormaetxeak.

Urtarrilaren 14an manifestazioa Usurbilen

Usurbil Bizirik taldeak manifestazioa antolatu du. Urtarrilaren 14an igandea, eguerdiko 12:00etan frontoi atzetik.

NOAUA!ko saskiek badute jaberik

Aurten turroia banatu dugu bazkide guztien artean. 10. Aurteurrena ospatzeko oparia izan da hori. Baina ez ditugu saskiak ahaztu. Ohi bezala, NOAUA!ko bazkideen artean bi saski zozketatu ditugu eta zorionekoak, honakoan,

Gari Udabe eta Mila Alzaga izan dira. Ohiturari jarraituz, publizitatea jartzen duten bezero guztien artean ere saski bat zozketatu dugu. Josue Aranzazistroki igeltseroak eta seme-alabek jaso zuten saskia. Datorren urtean, gehiago!



GARI UDABE PAGOLA,
219. BAZKIDEA.



MILA ALZAGA GOIKOTXEA,
287. BAZKIDEA.



PUBLIZITATE ARLOKO SASKIA: JOSUE
ARANZAZISTROKI IGELTSERITZA.

Andoni Sagarna, euskaltzain oso

Euskaltzaindiko bi aulki zeuden hutsik, eta haiek betetzeko bi hautagaitza aurkeztu zituzten azaroaren 24ko bilkuran euskaltzainek. Andoni Sagarnaren hautagaitza Mikel Zalbide, Bernardo Atxaga eta Adolfo Arejitak aurkeztu zuten; Xarles Bidegainen hautagaitza Jean Haritzelharrek, Piarres Xarritonek eta Emile Larrek. Euskaltzaindiak osoko bilkura egin zuen abenduaren 22an Donostian, eta euskaltzain berriak auke-ratzeko bozketak egin zituzten.

Gehiengoaren babesa

Sagarnak gehiengo osoa eskuratu zuen, baina Bidegainen, ordea, ez. Ondorioz, Euskaltzaindiaren arauak hala eginduta,

Andoni Sagarna bakarrik izendatu zuten euskaltzain oso.

Andoni Sagarna usurbildarra elektrotik ingeniaria da eta letretan doktorea. Euskara eta zientzia uztartzen hainbat lan egin du Elhuyarren, UZEIn, Eusenorren zein Elkarren. NOAUA!ko Kultur Elkarteko sortzaileetakoa izan zen eta NOAUA!ko lehendakari izan zen 1996tik 2002a bitarte.

2004tik, aisia eta kulturako produktuen sorkuntzan dihardu, Elkar enpresataldeko I+G+b arloko zuzendaria delarik. Bestalde, Euskara Zientifikoa irakasgaiko irakasle da Nafarroako Unibertsitatean eta, 2004tik hona, Eusko Ikaskuntzaren Hiznet Hizkuntza Plangintzako ikastaroan irakasle lanetan aritu da.



Argazkia: Aitor Bayo

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE Nagusia 10- atzekaldea
943 372 795

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

Asteburu honetan bi neurketa Haranen

Asteburu honetan 2007. urteko lehenengo partidak jokatu dituzte Usurbil Futbol Taldeko 1. Erregional eta Emakumezkoen ligako taldeek. Gabonetan atsedenaldia hartu ondoren, Harane futbol zelaian izango dute hitzordua igandean goiz eta arratsalde. Biek, gainera, aldameneko herrietako taldeen aurka neurtuko dituzte indarrak, Orioko eta Lasarte-Oriako Ostadar izango baitituzte aurrez aurre.

1. Erregional mailako taldearentzat garrantzitsua izango da 2007ko lehen neurketa hau. Aurtengo denboraldian gauzak ez doaz nahi bezain ondo eta sailkapeneko azken postuetan kokatuta daude lehen itzuliko azken partida jokatu aurretik. Momentu honetan jaitsiera postuetan daude, eta urtea garaipenarekin hastea ezinbestekoa da herriko jokalarientzat.

Denboraldi hasieratik beheko postuetan dabilen taldeetako bat izango dute aurrez aurre igandean arratsaldeko 16.00etan Harane futbol zelaian, Preferente mailatik jaitsi berria den Orioko taldearen aurka neurtuko baiti-

tuzte indarrak. Denbora dezentean azken bigarren postuan egon baziren ere gorantz egin dute oriotarrek eta lehen itzulia amaitzera doan honetan usurbildarrek baino 5 puntu gehiago dituzte.

Honela bada, azken postuetatik irten ahal izateko norgehiagoka hau irabaztea ezinbestekoa da Usurbil Futbol Taldearentzat. 3 puntura dago aurretik duten Pedrusko taldea eta Orioko ere gertu geldituko litzateke garaipena lortuz gero. Horrez gain, elkarren ondoan dauden bi herri hauen arteko lehia ikusteko aukera paregabea izango da Haranen, azken urteetan nagusien mailako taldeek ez baitute elkarren aurka jokatu.

Emakumezkoen ligako taldeak, berriz, goizean jokatu du Haranen. Hauentzat ere "derbi" antzekoa izango da igandekoa, Lasarte-Oriako Ostadar taldearen aurka jokatu baitute 11.00etatik aurrera. Denboraldi honetan estu dabilta herriko neskak. Orain arte partida bat irabazi eta beste bi berdindu dituzte, baina urteko lehen neurketa honetan bide onean sartzeko aukera ona dute. Lasartearrak sailkapeneko lehenengo postuetan kokatuta badaude ere, joaneko neurketan nahikoa lan izan zuten usur-



bildarrak gainditzen, Michelingo zelaian 1-0 nagusitu baitzen Ostadar.

Azkenik, 1. Jubenil mailako taldeak datorren asteburuan ekingo dio Kopa txapelketari. Hasierako ligaxkan azken bigarren postuan amaitu ondoren, hemendik aurrera aurkari berriak izango dituzte. 3. multzoan kokatu dituzte eta Intxurre, Urnieta, Texas-Lasarte-Oria, Segura, Amaro eta Idiazabal taldeak izango dira aurkariak. Lehen norgehiagokak Intxurreren aurka jokatu dute Alegian. Gabonetan lehiarik izan ez bada ere, talde honek lagunarteko partida jokatu zuen Haranen eta 1-0 irabazi zuten Liga Nazionaleko Antiguoko taldearen aurka.

JOSU ARANBERRI

Kiroldegiko bonoak berritzeko garaia iritsi da

2007. urtean sartzearekin batera Oiarde kiroldegian bonoak berritzeko garaia iritsi da. 2007. urterako prezioak kaleratu dituztenez, aldaketaren bat nahi duten bazkideek kiroldegian eman beharko dute horren berri. Horrez gain, aurtun bonodun egin nahi duten erabiltzaileek ere kiroldegira jo beharko dute bazkide egiteko.

Bonoei dagokionez, mota desberdinetakoak daude. Urte osokori dagokionez, 129 euro ordaindu beharko dute 18 urtez gainekoek, iaz baino 9 euro gehiago eta 75 euro 18 urtez azpikoek, iaz baino 6 euro gehiago. Bono familiarra, berriz, 196 euro kostako da, 2005ean baino 14 euro gehiago. Bestalde, bonodun ez direnentzat sarrera 4,90 eurokoa izango da 18 urtez gorakoentzat eta 3 eurokoa 18 urtez beherakoentzat.



Ordutegiari dagokionez, ez dago aldaketarik. Iaz astelehenetik ostiralera goizez 12.30etan itxi beharrean ordute-

gia 14.00ak arte luzatzea erabaki zuten eta aurtun ere ordu horretan itxiko da kiroldegia eguerdietan.

Sukaldaritza tailerra antolatu du Udarregiko guraso elkarteak

Elikadura ekologikoaren hitzaldiari jarraituz, bertan aipatu ziren hainbat elikagai prestatzen ikasteko aukera izango da sukaldaritza tailer honetan. 0-3 adin tarteko haurrentzat menu orekatu bat egiten irakatsiko da, gosaria, bazkaria, merienda, afaria, urtaro ezberdinetako elikagaiak, adin tarteko behar ezberdinak, gaitasunei aurre egiteko elikagaiak...

Jabier Arozena zientzia biologikoan lizentziatua eta nutrizio zein dietaterapian aditua da. Oinarriak Eraikiz guraso elkartearen ekimenez eskainiko du bost egunez luzatuko den ikastaroa. Udarregi ikastolako sukaldean eskainiko da ikastaroa. Urtarrilaren 10ean lehen saioa, eta gainontzekoak, urtarrilaren 12an, 15ean, 17an



0-3 ADIN TARTEKO HAURRENTZAT MENU OREKATUA PRESTATZEN IRAKATSIKO DA.

eta 19an. Matrikula, 20 euro. Izena emateko, telefono zenbaki honetara deitu behar da, 943 374 061 telefono zenbakira, goizeko 9:30etik 13:00era. Kontuan izan ikasle kopurua mugatua izango da, gehienez 15 pertsona.

KzGunea arratsalde irekiko da urtarrilean

A benduan KzGunea goizez irekita egon bada ere, urtarrilean arratsalde egongo da martxan, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Internet gunea izateaz aparte, ikastaro ugari eskaintzen dira KzGuneako egoitzan. Urtarrilaren 8an, "Internet euskaraz" ikastaroa hasiko da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro hau ere erdaraz eskainiko dute baina urtarrilaren 22tik aurrera.

Bestelako ikastaroak ere eskainiko dira urtarrilean zehar. Horretaz aparte, IT txartela eskuratzeko aukera asko izango dira. Urtarrileko egun hauetan: 8, 9, 12, 15, 16, 17, 23, 24, 25, 29, 30.

Herritar Txartela

Administrazio Publikoarekin zenbait tramitazio egiteko aukera ematen du Herritar Txartela delakoak. Txartel hori KzGunean eska daiteke.

KzGunea, Kale Nagusia, 37 / 943 36 14 12.

Eguneko goardiako farmaziak

Urtarrilak 4, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urtarrilak 5, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urtarrilak 6, larunbata
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urtarrilak 7, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urtarrilak 8, astelehena
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Urtarrilak 9, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urtarrilak 10, asteazkena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urtarrilak 11, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urtarrilak 12, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urtarrilak 13, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Urtarrilak 14, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeste Farmazia, Elkano 2 kalea, Hernani.
Telefonoa: 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko goardiako farmaziak www.noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA TS
943 300 400
pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak
TABERNA

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Agenda !

Urtarrilak 2, asteartea
Monda eta Lironda pailazoak Sutegin. 17:00.
Sarrerak: alde aurretik, euro 1, kiroldegian;
takilan, 2 eurotan.

Urtarrilak 3, asteazkena
Kukubiltxoren Kukubel antzezlanak Sutegin.
17:00. Sarrerak: alde aurretik, euro 1 kiroldegian;
takilan 2 eurotan.

Urtarrilak 4, osteguna
Gabonetako kanten emanaldia eta gaztain
jatea frontoian. 18:00.

Urtarrilak 5, ostirala
Eguerdiko 12:00etan haurren gutunak jasoko
dituzte erregeen pajeek. Erregeak, aldiz, arratsaldeko
19:30ean iritsiko dira pilotalekura.

Urtarrilak 13, larunbata
Ezker Abertzaleak deituta, herri batzarra
Sutegi kultur etxean, arratsaldeko 16:30etik
aurrera.

Urtarrilak 14, igandea
Erraustegien aurkako manifestazioa, 12:00etan
frontoitik. Deitzailea: Usurbil Bizirik.

Abenduak 25-Urtarrilak 6
Umeek diseinatutako kamiseten erakusketa
Sutegin. Antolatzaileak: Usurbilgo Guraso
Eskola eta Zirriborro Pintura Tailerra.
Ordutegia: 17:30-19:30.

Herriko gudarien oroimenez



Jende ugari bildu zen gudari usurbildarren aldeko omenaldian. Abenduaren 30ean frontoian egin zen ekitaldian, besteak beste, Joseba Alvarez Batasunako kideak hartu zuen parte. Gudari hilen senideei oroigarri bana eman zitzaizen. Bukaeran, Bordatxo pareko errotondara joan ziren bildutakoak eta "Euskal presoak Euskal Herrira" zapia jarri zioten Olentzerori.

Hatortxu Rock jaialdira joateko autobusa antolatu da

Urtarrilaren 13an ospatuko den "Hatortxu Rock"en zortzigarren edizioa Berriobeitin izango da. Nafarroan euskal errepresaliatuen alde egiten den ekimenera joateko autobusa abiatuko da Usurbildik. Dagoeneko bidea garraibide horretan egiteko izen ematea zabalik dago; Irrati eta Ardi Beltz tabernatan. Gaueko 21:30etan hasiko den emanaldian Soziedad Alkoholika, Anestesia, Gatibu, Piperrak eta Habeas Corpus musika taldeek parte hartuko dute.



Astelehenean, odol-ematea

2007ko lehen odol-ematea datorren astelehenean izango da, urtarrilaren 8an arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara anbulatorioan. Odola emateko betebeharreko baldintzak, hauek: 18 eta 65 urte bitartekoa izatea, 50 kilotik gora pisatu, gaitzarik ez edukitzea, azken bi hilabeteotan odola ez eman izana, odola ematerakoan medikuak egiten duen azterketa gainditzea (tentsioa, pultsoa, hemoglobina maila). Baraurik ez egon edo denbora askoan jan gabe (ordu pare bat lehenago mokadutxo bat hartu).



BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186

ETXEBIZITZA

- Otsailetik aurrera Usurbilen gela bat alokatzen da. 250 euro gehi kontsumoak eta sukalde erabiltzeko eta arropa garbitzeko eskubidearekin. 943365737.
- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.
- Emakume bat naiz eta hiru seme alaba ditut, urgentziaz etxe bat alokairuan bilatzen ari naiz Usurbilen edo inguruan. Ana, 661 267 503.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Trastero bat alokairuan hartuko nuke Usurbilen edo auzoetan. 687 706 081.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari laguntzailea behar da Usurbilen. Interesatuak deitu 943370344
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo per-

tsona helduak zaintzeko. 676221378.

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsalde etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ondo zainduko duen norbaiti 3 urteko Setter Inglesa oparituko nioke. 645 735750.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko

eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.

- Azaroak 19an Kale Nagusian, Arratoi Txakur marroi ilun bat aurkitu da. Galdu duenak deitu 659883912 telefonora.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- Citroen Sahara 2000 HDI VTS Cupe bat daukagu salgai. Oso ondo zaindua eta beti garajea egondakoa. Extra asko ditu. 667272889
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak daukat salgai. 664774024
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak saltzen ditut modu onean. 664774024.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. 679185102
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Txerrimunik ordainetan

Zorionak bikote!!

Josebak 24an eta Elik 28an egin dituzue urteak eta berandu bada ere zorionak parkeko kuadrila osorenen partez eta besarkada bero bat!



Zorionak amona!

Urtarrilaren 8an egingo dituzu urteak eta zain gaude denak merienda goxo batekin ospatzeko. Zorionak eta muxu potolo bat biloba eta etxeko guztien partez.



HILDAKOAK

- Jose Miguel Bengoetxea Artano 53 urterekin hil da, Txikierrdin.



Oharrak, Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea: urtarrilak 12.

Zorion-agurrak urtarrilaren 8a baino lehen ekarri edo bidali.
erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

2007ko egutegia

2007ko egutegian izan-dako inprenta akatsak ikusirik, NOAUA! Kultur Elkarteak egutegia berririo argitarazi du. Horieta aleren bat eskuratu nahi baduzu, NOAUA!ko bulegotik pasa eta doan jaso dezakezu.

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3
Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Its r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JOSUE
ARANZAZISTROKI

IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Tef: 606 37 21 05

➤ www.noaua.com ⬅

usurbildarron zerbitzura



indarrak
biltzeko garaia

orain
ezker abertzalea

urtarrilak 13
herri batzarra

16:30ean Sutegin

Gaia:
Udal hauteskundeak